

BERARIAZKO SARBIDE-PROGA

Eskubaloia Erdi-mailako 1. maila

Izangaiek egoera fisiko egokia eta beharrezko trebetasunak dituztela frogatu beharko dute, aukeratu duten prestakuntzan emaitza onak atzeratzeko beste, behintzat. Parte-hartzearen ordena zozketa publikoaren bidez zehaztuko da eta ariketa bakoitzeko aukera bakarra edukiko da.

Sartzeko probetan, «Gai/Ez gai» kalifikazioa baino ez da emango. «Gai» kalifikazioa lortzeko, izangaiek proba osatzen duten bi zatiak gainditu beharko dituzte.

Honako hauek salbuetsi egingo dira sartzeko berariazko probak egitetik:

- a) Errendimendu handiko edo horren maila baliokideko kirolaria dela egiaztatzen duena.
- b) Ziurtatzen duena kasuan kasuko kirolfederazioak herrialdearen izenean nazioarteko lehiaketetan lehen mailan aritzeko hautatua izan dela – gutxienez behin azken bi urteetan–.
- c) Eskubaloi-modalitatean, azken bi urteetan gutxienez ere denboraldi batez ASOBAL Eskubaloi Ligako, Ohorezko B Mailako Ligako edo Emakumezkoen Ohorezko B Mailako Ligako (Costablanca ABF Liga) talderen batean parte hartu duten jokalaria.

Halere, izena eman eta dagozkion tasa ordaindu beharko dute.

a) Lehenengo zatia: Zirkuitu teknikoa

Izangaiek epaimahaiak ezarriko duen ibilbidea egin beharko du eskubaloiko jokaleku batean, epaimahaiak berak ezarritako denboran; ibilbidean ondoko ariketak egin beharko ditu:

1. Baloirik gabe, korrika egin sigi-sagan 6 oztoporen artean (banderatxoak edo zutoinak).
2. Baloia bost aldiz jaurti eta jaso, hiru metrora jarritako erreferentzia batean paratuta (horma, panela,...).
3. Baloiari bote eraginez, korrika egin sigi-sagan 6 oztoporen artean (banderatxoak edo zutoinak).
4. Baloia lagun bati pasatu, desmarkea egin oztopo (banderatxoa edo zutoina) baten atzetik eta gero atzera baloia jaso.
5. Baloiari bote eraginez korrika egin eta jaurtiketa librearen marraren eta atemarraren artean atzera jaurti.
6. Leku jakin batetik eskubaloiko berariazko defentsa-lekualdaketak egin (kulunkatu) eskuinera, ezkerrera, aurrera eta atzera, eta 3 metrora jarritako erreferentziak (konoak, zutoinak, banderatxoak,...) ukitu.
7. 20 metro korrika egin zuzenean.

- ✓ **Lehen zatiaren ebaluaketa**: Proben lehen zatia gaindituztat joko da izangaiak ibilbide teknikoak epaimahaiak ezarritako denboran eginez gero ondoko akats hauek egin gabe:

Lehenengoa: Bi erreferentzia baino gehiago bota.

Bigarrena: Baloia kontrola galdu.

Hirugarrena: Erreferentzia bat baino gehiago bota edo baloia galdu.

Laugarrena: Baloia behin baino gehiagotan galdu.

Bosgarrena: Baloia behin baino gehiagotan galdu, falta teknikoren bat egin (boteko bikoitza, urratsak, ate-eremua zapaldu...) edo aterako jaurtiketan kale egin.

Seigarrena: Erreferentzia bat baino gehiago bota.

b) Bigarren zatia: Jokoaren ezagutza eta ulermena

Izangaiak eskubaloiko partida bat jokatu beharko du, 10 minutukoa, «lau lauren kontra» moduan, hau da, talde bakoitzean kantxako 4 jokalarik eta atezaina ari direla, eta bere trebezia teknikoak eta eskubaloia printzipioen eta funtsen ezagutza eta ulermena aplikatu beharko ditu.

- ✓ **Bigarren zatiaren ebaluaketa**: epaimahaiak ondokoak ebaluatuko ditu:
- Nola aplikatzen dituzten trebezia teknikoak jokoan.
 - Eskubaloia printzipioen eta funtsen ezagutza eta ulermena.

Ebaluatzaile bakoitzak egoki deritzon nota emango du, izangaiaren jokaerak eta hauen maiztasuna kontuan hartuta.

- 1) Aktiboki parte hartzen du jokoan.
- 2) Lankidetzaz-estrategiak eta aurkakotasun-estrategiak erabiltzen ditu jokoan zehar.
- 3) Baloia pasatu eta jasotzen du, aurkako taldearen aterantz aurrera eginez.
- 4) Desmarkatu egiten da eta baloia duen jokalaritari laguntzen dio hainbat lekutan.
- 5) Erasotzaileen ekintzei aktiboki aurre egiten die.
- 6) Jarrera positiboa azaltzen du defendatzeko eta baloia berreskuratzeko.

Proben bigarren zatia gaindituztat joko da izangaiak gutxienez ere hiru puntu lortzen baditu ebaluatutako jokaera bakoitzean, ebaluatzaile guztien kalifikazioen batez bestekoa egindakoan.